



ESTOMA DERIBATIBOA ETA OSTOMIA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA REALIZACIÓN DE ESTOMA DERIVATIVO-OSTOMÍA

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
.....Data:

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMAZIOA:

Jakinarazi didate prozedura honen bidez koloneko edo heste meharreko argia abdomeneko hormara bideratu nahi zaiola, uzki artifizial bat (ostomia) sortzeko eta, horren bidez, gorozkiak edo deposizioak egiteko, zeina behin-behinekoa edo behin betikoa izan baitaiteke.

Prozedura honen bidez, gorozkiak ostomiara bideratu nahi dira, heste-edukia zati distaletik igaro ez dadin.

Horretarako, abdomenean zulo bat egingo da, eta, zulo horretatik, kolona edo heste meharra aterako da. Batzuetan beharrezkoa da barrunbe abdominalera sartzea, kolona edo heste meharra behar bezala identifikatzeko.

Sarbide hori hainbat bidetatik egin daiteke (edo laparotomia bidez edo laparoscopia bitartez):

- **laparotomia bidez irekitako aboradatzea:** abdomenean ebaki bat eginez, luzera aldakorrekoa.
- **laparoscopia bidez itxitako aboradatzea:** trokarrak sartuz, abdomenean ebaki txikiak eginez eta sabelaldean gasa sartuz. Teknikoki edo ebakuntza barruko aurkikuntzengatik kirurgia bide hori erabilita amaitu ezin denean, kirurgia irekia bihurtuko da (laparotomia).

Batzuetan, alde zurretik prestatu behar da, hestea garbitzeko.

Badakit, halaber, litekeena dela kirurgiak irauten duen bitartean prozeduran aldaketak egin behar izatea eta hasieran aurreikusi gabeko aldaerak erabili behar izatea, hain zuzen ere miaketan ustekabeko aurkikuntzak egin direlako, betiere tratamendurik egokiena emateko.

Aldaketa horiek garrantzitsuak direnean, familiari edo ordezkariari jakinarazi eta baimena eskatuko zaio.

B. INFORMACIÓN:

He sido informado que mediante este procedimiento se pretende derivar la luz del colon o del intestino delgado a la pared abdominal, con el objetivo de crear un ano artificial (ostomía) para hacer las deposiciones a través del mismo, que puede ser provisional o definitivo.

Mediante este procedimiento se pretende derivar las deposiciones a la ostomía para impedir el paso del contenido intestinal a través de la parte distal.

Para ello, se realizará un orificio en el abdomen a través del cual se extraerá el colon o el intestino delgado.

A veces es necesario acceder a la cavidad abdominal para la correcta identificación del colon o del intestino delgado.

Este acceso puede realizarse por distintas vías (o mediante laparotomía o mediante laparoscopia):

- **abordaje abierto por laparotomía:** realizando una incisión en el abdomen de longitud variable.
- **abordaje cerrado mediante laparoscopia:** con la introducción de trócares a través de pequeñas incisiones en el abdomen e introduciendo gas en el abdomen. En casos en que técnicamente o por hallazgos intraoperatorios no sea posible concluir la cirugía por esta vía se procederá a la conversión a cirugía abierta (laparotomía).

En ocasiones, es necesario realizar una preparación previa para limpiar el intestino.

También sé que cabe la posibilidad de que durante la cirugía haya que realizar modificaciones del procedimiento y utilizar variantes del mismo no contempladas inicialmente, por hallazgos imprevistos en la exploración con el fin de proporcionarme el tratamiento más adecuado.

Cuando estas modificaciones sean de consideración se informará y solicitará consentimiento a la familia o representante.



Medikuak ohartarazi dit prozedura honek anestesia orokorra behar duela, eta litekeena dela interbentzioa egin bitartean edo ondoren odola eta/edo hemoderibatuak erabili behar izatea; beharrezkoa da zure medikuari esatea arazoren bat duzun. Arriskuen berri anestesia-zerbitzuak emango dit.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK

Ulertzen dut, nahiz eta teknika egokia aukeratu eta behar bezala egin, konplikazioak gerta daitezkeela, bai esku-hartze orotik eratorritakoak, organo eta sistema guztiei eragin diezaieketenak, bai prozedurako beste batzuk, hala nola:

- **Ez oso larriak eta ohikoak:** infekzioa edo hematoma edo zauri kirurgikoak eragindako odoljariora, flebitisa, gernu-erretentzio akutua, heste-igarotze normala lehengoratzeko atzeratzea, ebakuntzaren eremuan luzaroan mina izatea.
- **Ez oso ohikoak eta larriak:** laparotomiaren dehiszentzia (zauria irekitzea). Inbaginazioa, nekrosia edo ostomiaren prolapsa. Odoljario edo infekzio handia. Hesteetako buxadura.

Laparoskopia kirurgiagatik lesio baskularrak, alboko organoetako lesioak, gas-embolia eta pneumotoraxa egon daitezke.

Kirurgiaren ondoren, kirurgia bakoitzaren konplikazioetako edozein ager daiteke: bihotz-biriketako arazoak, tronbosia, gernu-infekzioak edo zainetako kateter-infekzioak, aurretiko gaixotasunen desorekak (arnasketakoak, diabetesa, bihotzekoak, etab.).

Konplikazio horiek tratamendu medikoa erabiliz konpondu ohi dira (medikamentuak, serumak, etab.), baina baliteke konplikazioa konpontzeko ebakuntza bat berriro egin behar izatea, eta, salbuespen gisa, ebakuntza mota horren ondoriozko heriotza gerta daiteke.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

El médico me ha advertido que el procedimiento requiere la administración de anestesia general y que es posible que durante o después de la intervención sea necesaria la utilización de sangre y/o hemoderivados; es necesario decirle a su médico si tiene algún problema al respecto. De sus riesgos me informará el servicio de anestesia.

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES

Comprendo que a pesar de la adecuada elección de la técnica y de su correcta realización pueden presentarse complicaciones, tanto los comunes derivados de toda intervención y que pueden afectar a todos los órganos y sistemas, como otros específicos del procedimiento, que pueden ser:

- **Poco graves y frecuentes:** infección y sangrado de herida quirúrgica, flebitis, retención aguda de orina, retraso en la restauración del tránsito intestinal normal, dolor prolongado en la zona de la operación.
- **Poco frecuentes y graves:** dehiscencia de la laparotomía (apertura de la herida). Invaginación, necrosis o prolapso de la ostomía. Sangrado o infección importante. Obstrucción intestinal.

Por la cirugía laparoscópica puede haber lesiones vasculares, lesiones de órganos vecinos, embolia gaseosa y neumotórax.

Después de la cirugía puede aparecer cualquiera de las complicaciones propias de cada cirugía: problemas cardiopulmonares, trombosis, infecciones de orina o de los catéteres venosos, descompensaciones de enfermedades previas (respiratorias, diabetes, cardíacas, etc.).

Estas complicaciones habitualmente se resuelven con tratamiento médico (medicamentos, sueros, etc.), pero pueden llegar a requerir una reoperación para la solución de la complicación y, excepcionalmente, puede producirse la muerte.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.



D. ESAN IEZAGUZU:

Honako hauen berri eman behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazio-asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, oraingo botikak edo beste edozein inguruabar, izan ere, arrisku edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete.

E. ARRISKU PERTSONALIZATUAK:

Baliteke pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziek eta gaixotasunek (diabetesa, hipertentsio arteriala, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna eta larritasuna handitzea. Medikuek zure kasuan izan daitezkeen arriskuak jakinarazi dizkizu.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Medikuek azaldu dit nire kasuan ez dagoela gaixotasuna tratatzeko beste aukera eraginkorragorik.

G.- OHARRAK:

.....
.....

Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. "HISTORIA KLINIKOA" tratamenduaren helburua da pazientearen historia klinikoaren datuak izatea, pazientearen jarraipena egiteko eta jarduera asistentziala kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Baliteke datuak hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-entitateak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza osasun-langileek eman dituzte. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E. RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F. ALTERNATIVAS:

El médico me ha explicado que en mi caso no existe otra alternativa más eficaz de tratamiento para la enfermedad.

G.- OBSERVACIONES:

.....
.....

Información básica sobre protección de datos: se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección

web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>



DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN ONDOREN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU OSTEAN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN.

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea / El Paciente

Pazientearen izen-abizenak

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua / El/La Médico

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkaria: pazientea ezgaituta badago edo adingabea bada / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NANA eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha



Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Uvertzen dut zenbaiterainoko irismena eta arriskuak dituen adierazitako prozedura EZ BETETZEAK. Eta baldintza horietan erabiltzen dut atzera egiteko eskubidea.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha